

31 zenbakia  
2020ko urria

# bai

Bai Euskarari  
Elkartearen aldizkaria



*“Garapen Iraunkorrerako Helburuen aplikazioa euskal enpresa-sarean. Eta hizkuntza aniztasuna?”*

**#EnpresareanAzoka2020**



Rober Gutiérrez  
[Zuzendaria]  
@robergutierrez

## Mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa eraiki nahian

Enpresarean azokaren bosgarren edizioaren atarian gaude. 2010ean hasi ginen proiektuan lehendabiziko urratsak ematen, alor sozioekonomikoaren beste espazio bat euskaraz betetzeko eragiten. Profesional euskaldunen eta euskara aintzat hartzen eta baliatzen duten enpresen beharrei erantzuteko baliabide bat eratu nahi genuen, elkar ezagutzeko, hitz egiteko, eztabaidatzeko, elkarlana sustatzeko eta proiektuak partekatzeke gune bat, profesional eta enpresa hauen beharrei erantzungo diena, euskaraz.

Foroak, jardunaldiak, Enpresarean TBren zuzeneko emanaldiak eta azokaren lau edizio antolatuta ditugu orain arte. Enpresen etorkizuneko erronkez, finantzazioaz, ekintzailtzaz, krisialdiari aurre egiteko formulaz, pertsonez, digitalizazioaz eta transformazioaren etorkizuneko erronkez aritu gara, besteak beste.

Aurtengo edizioaren gaia, Bai Euskarari Elkartek kudeatzen duen Euskaragileak enpresa batzordearen proposamen batetik sortu zen. Euskararen normalizazioan aurreratuta dauden enpresek osatzen dute Euskaragileak batzordea: Cikautxo, Batz, Danobat Group, Eika, Elay, Elkar, Fagor Taldea, Goizper Group, IMH, Irizar, Mondragon Korporazioa, MU eta Orkli.

Enpresa hauen iritziz, administrazioak eta enpresak "Garapen Iraunkorrerako Helburuak" (GIH) lantzen hasi dira, Nazio Batuen Erakundeak abian duen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren baitan. Marko horrek 17 helburu definitu ditu, mundua hobetzeko, baina hizkuntza aniztasuna ez da modu esplizituan aipatzen. Hala ere, hor dago nolabait... Gure ustez, berezko lekua eskaini beharko litzaioke hizkuntzari GIHen artean eta olatua baliatu beharko genuke lanketa eta proposamen bat egiteko, erantzukizun linguistikoa enpresen gizarte-erantzukizunaren parte baita.

Enpresarean aurtengo edizioa, gainera, urte xeble batean dator. COVID 19ak erabat baldintzatu ditu gure egunerokoa eta enpresen jarduna hilabete hauetan, eta espermentatzeraz bideratu gaitu. Testuinguru horretan, asko ari gara hitz egiten etorkizunerako baldintza egokiagoak eraikitzeaz, tokikoari garrantzia emateaz, bertatik eraikitzeaz, elkarrekin eraikitzeaz... Geroa elkarrekin eraiki behar dugu eta euskaratik eraikitzeke, aldaketak egiteke eta eragiteke baliatu behar dugu egoera hau. Gure ongizatea eta lurraldearen garapena hizkuntzekin ere lotu behar dira, euskara baita gure ongizaterako giltzarri nagusietako bat.

Enpresarean Azokak horren guztiaren inguruko hausnarketa egiteke plaza eskainiko du; euskaratik eta euskaraz, mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa eraiki nahian.

### Enpresarean Azoka 2020

|   |    |
|---|----|
| Egitaraua   | 03 |
| Usue Lorenz eta Mercedes Oleaga<br><b>Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua</b> | 04 |
| Iratxe Olabarri<br><b>Ingeteam Group</b>  | 06 |
| Ibon Antero<br><b>Mondragon Korporazioa</b>   | 08 |
| Leire Okarantza<br><b>Fagor Taldea</b>  | 10 |
| Gotzone Olarra<br><b>Intermon Oxfam</b>   | 12 |
| Mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa eraikitzeke 17 helburu                              | 13 |
| <b>Bai Euskarari Albisteak</b>  | 14 |

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea  
[www.baieuskarari.eus](http://www.baieuskarari.eus)

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkartearen Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea, Arteman Komunikazioa, Orkestra, Ingeteam eta Intermon Oxfam.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010

[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)



# #EnpresareanAzoka2020

Urriak 22. Orona Ideo (Hernani)



[08:30-09:00]

## Harrera eta dokumentazio-banaketa

[09:00-09:15]

## Aurkezpena

Aurkezlea:

- **Anabel Arraiza**.

Aurkezpen instituzionala:

- **Imanol Lasa** (Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatua)
- **Xabier Lertxundi** (Hernaniko alkatea)
- **Rober Gutiérrez** (Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria)

[09:20-10:00]

## Sarrera-hitzaldia eta gaiaren kokapena

Hizlaria:

- **Usue Lorenz** (Orkestra): *Ez utzi inor atzean*

## Agenda 2030ari ekarpena: iraunkortasuna eta hazkunde ekonomikoa; hizkuntza aniztasuna; eta inklusioa.

[10:00-11:00]

## SOLASALDIA: Iraunkortasuna eta hazkunde ekonomikoa?

### Zein da iraunkortasunaren irizpidea negozio-estrategian txertatzeko bidea? Hazkunde ekonomikoa eta iraunkortasuna bateragarriak al dira?

Dinamizatzailea:

- **Eguzki Urteaga**. (EHU - Soziologia Graduko irakaslea. Eusko Ikaskuntza - Eusko Ikaskuntza Iparraldeko Presidentea)

Hizlariak:

- **Ibon Antero**. (Mondragon Korporazioa - Eraldaketa sozialerako ekintzen koordinatzailea)
- **Gotzone Olarra**. (Oxfam Intermon - Boluntariotzako eta bidezko merkataritzako teknikaria)
- **Iratxe Olabarri** (Ingeteam Group - Salmenta arduraduna)

[11:00-12:00]

## ESPERIENTZIA-TRUKEA

### Inklusibitatea lantzen ari diren enpresak eredu.

Dinamizatzailea:

- **Anabel Arraiza**

Hizlariak:

- **Zigor Diez** (Sutargi - Gerentea, zuzendaritzako kidea) + **Jennifer Alonso** (Sutargi- lan orientatzailea)
- **Joseba Oyarzabal** (Eredu Koop. E. - Fabrikazio arduraduna)
- **Ainara Diez** (Akaba - Managerra)
- **Laura Amoros** (Oiarso Bexen - Finantza zuzendaria)
- **Mitzel Lakuntza** (Atzegi - Zuzendaria) + **Aihotz Albizu** (Pauso berriak programako kidea, Andoaingo Udaleko langilea); **Idoia Malkorra** (GUREAK - Pauso Berriak programako laguntza teknikaria); **Maider Lainez** (Andoaingo Udaleko alkatea)
- **Nuria Agirre** (Laboral Kutxa - Gestio sozialeko zuzendaria)
- **Alicia Suso** (Cáritas)

[12:00-13:00]

## SOLASALDIA: Hizkuntza aniztasuna eta garapen iraunkor globala.

### Hizkuntza aniztasunaren kuadeaketan Administrazioak eta enpresek duten erantzunkizuna, hizkuntza gutxitu bat tartean dagoenean. Zein da jardunbide egokia?

Dinamizatzailea:

- **Leire Cancio**. (Agirre Lehendakari Center - Proiektu arduraduna)

Hizlariak:

- **Leire Okarantza** (Fagor - Gestio Sozialeko arduraduna)
- **Natxo Lekunberri** (Mutualia - Zuzendari-kudeatzailea)
- **Miren Dobaran** (Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordea)
- **Ines García Azkoaga** (EHU-ko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren arduraduna).

[13:00-13:30]

## ARIN-ARIN aurkezpena, Ekintzaileon Txanpa.

GFaren Sustapen ekonomikoko sailarekin elkarlanean.



## Usue Lorenz eta Mercedes Oleaga Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua



# *Ez utzi inor atzean*

**COVID-19ak eragin duen egoera krisi soziosanitarioa baino askoz ere gehiago da. Orkestrak argitaratu dituen postak jarraitu dituztenek argi izango dituzte krisi honen askotariko eraginak. Argi dago birusak gizartearen funtsari berari egin diola eraso.**

Krisi honetatik atera eta gauzak beste modu batera egiteko garaian, inoiz baino indar handiagoa dute 2030eko Agendak eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuek. **Agenda horrek guztiok norabide berean lan egitera bultzatzen gaitu, mundu bidezkoagoa, oparagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko, inor atzean utzi gabe.** Ekonomia, gizarte eta ingurumen hazkundera lortu nahi du.

2020. urtearen hasieran, Agenda "ezartzeko hamarkada" deitutakoa lantzeari ekin genion, azken helburuak lortzeko funtsezkoa. Lurralde maila eta erakunde publiko guztiak Garapen Iraunkorreko Helburu horiek lortzeko beren parte hartzea indartzen eta ekintzak diseinatzeko hasiak ziren, gogoz. Erakunde pribatuak ere konturatu ziren **2030eko Agendak epe ertain eta luzera lehiakortasuna hobetzen lagundu ziezaikeela**, Agenda hori beren estrategian integratuta.

Hala ere, osasun krisiak **lehentasunak egokitzea** eta pandemia honetan indar guztia Garapen Iraunkorreko 3. helburuan, *Osasuna eta Ongizatea* jartzea ekarri du, epe laburrera erantzun berehalakoa eta egokia emateko.

Aste hauetan, gizarte eta ekonomia dimentsioek okerrera egin dute; ingurumen dimentsioak, ordea, hobera egin du. 2030eko Agendaren helburuak lortzeko atzerapauso nabarmena da hori. Esate baterako, enpresak itxeak, lanaldia murrizteak, langabezia prestaziorik ez izateak dakartzen ondorioek, gizartearen % 100ak digitalizaziorako sarbiderik ez edukitzeak epe luzera pobrezia eta desberdintasun zikloak handituko dituzte eta horrek eragin negatiboa izango du, gure gizarteetan, hainbat helburutan: Garapen Iraunkorreko 4. helburua, Hezkuntza; Garapen Iraunkorreko 8. helburua, Lan duina eta hazkunde ekonomikoa; eta Garapen

Iraunkorreko 9. helburua, Industria, Berrikuntza eta Azpiegiturak. Horrek guztiak enpresen ekonomia eta finantza zaugarritasunari eragiten dio, krisia hasi baino askoz ere zaugarritasun handiagoa baitute orain.

Aipatu ditugun Garapen Iraunkorreko Helburuek lotura dute, noski, 10. helburuarekin, Desberdintasunak murriztea, eta eragina dute, nagusiki, talde ahulenetan, horien artean, neskak, gazteak eta emakumeak.

### Egoera horren aurrean, garapen iraunkorrerako agenda globalak garrantzia galdual du?

2030eko Agendak garrantzi handia du, inoiz baino handiagoa, baina kritikik atzerako biderako beharrezkoa izango da **bestelako gizarte kontratu bat asmatzea**, askotariko entitate eta eragileek erabakiak hartzeko orduan ahotsa izan dezaten.

Gizarte kontratu berri horrek pertsonen ongizatea izan beharko du oinarri, ezin baita inor atzean utzi. Eta ekintza kolektiboa bultzatu beharko du erronkei erantzuteko, bai erronka globalei eta bai ongizatearen zerbitzura egongo den eskualdeko lehiakortasunaren tokiko erronkei ere.

Egoera onbideratzeko eta berritzeko garai honetan, enpresek eta bestelako erakunde pribatuek 2030eko Agendan beren ekintzak bideratzeko gida aurki dezakete. **Agendarekin lotutako baliabideen artean adibideak** aurkituko dituzte beren ekintzak bideratzeko: esate baterako, egoeraren analisia, krisiak interes talde bakoitzari nola eragiten dion aztertzeke, bereziki, langileei, hornitzaileei, bezeroei, kontsumitzaileei eta inbertsiogileei; edo talde horietako bakoitzean eragin negatiboak saihesteko orientazioa.

Agenda, halaber, **epe luzeko inbertsio iraunkorrean** oinarritutako sistema bat sustatzeko gida ere izan daiteke. Eta lagundu dezake soluzio, proiektu eta zerbitzuetan negozio aukerak bilatzen, ekonomia zirkularran edo osasun arloan, besteak beste.

Inoiz baino gehiago eta salbuespenik gabe, beharrezkoa da **gizarteko eragile guztiak behar diren eraldaketak egitea**, bakoitzak bere errealitatea kontuan hartuta, COVID-19az haratago, elkarrekin etorkizun oparo bat eraikitzeko.

Inoiz baino gehiago, Poparen Erregearen 1991ko abesti honek erabateko zentzua hartzen du...

*Heal the world*

*Make it a better place*

*For you and for me*

*And the entire human race*

**mitxelena**  
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21  
HERNANI  
T. 943 55 25 12 - 16  
T. 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com

# “Munduaren etorkizuneko garapen ekonomikoak zuzeneko lotura izan behar du ingurumena erabat errespetatzearekin”

Ingeteam Groupeko salmenta arduraduna da Iratxe Olabarri. Energia elektrikoaren eraldaketan jarduten dute eta Garapen Iraunkorrek Helburuak txertatu dituzte taldearen Plan Estrategikoan. Enpresarean jardueraz eta erantzunkizun sozialaz jardun dugu berarekin.

## Zer egiten duzue Ingeteamen?

Ingeteam energia elektrikoaren eraldaketan espezializatutako nazioarteko Talde Teknologikoa da. Taldearen garapen teknologikoa hurrengo produktuetan gauzatzen da: potentzia eta kontrol elektronika (inbertsoreak, frekuentzia bihurtzaileak, kontrolagailuak eta babesgailuak) eta makina elektriko eta hidrauliko errotatiboak Inder markapean eginak (sorgailuak, motorrak, ponpak). Ingeniaritza eta automatizazio proiektuek, bai eta lan eta mantentze zerbitzuek ere osatzen dute gure eskaintza. Produktu eta zerbitzu eskaintza honako alor hauetara zuzentzen ditugu: energia eolikoa, fotovoltaikoa, hidraulikoa eta fosila; metal eta mineralen eraldaketa; eta ontzizintza, tren-industria eta energia elektrikoaren sarearen industria (azpiestazioak barne). Beti ere, eragin-garriagoa izango den energiaren sortze, garraio, banaketa eta kontsumoa bilatzea dugu helburu.

Enpresa mundu osoan dago zabaldurik, 4.100 langile ditu, eta gure jarduna lkerketa eta Garapenean (I+G) dago egituraturik. Urteko fakturazioaren % 5 I+Gean inbertitzen da.

## Trantsizio energetiko globaleko ere-

## dua bultzatzea da bere misioa. Nola bideratu duzue Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrek Helburuen (GIH) ezarpena jarduten duzuen sektoreetan?

Ingeteam taldearen Administrazio Kontseiluak, erantzukizun sozial korporatiboko politikaren esparruan, NBERen Agenda 2030ko Garapen Iraunkorrek Helburuetatik 8 aukeratu ditu. Hain zuzen ere, indarrean daukagun 2019-2021 Plan Estrategikoaren Misioan eta Ikuspegian ezarritako estrategiarekin hobekien lerrokatutako GIHak dira, eta helburu horiek lortzeko zeresan handia dauka taldearen jardura teknologikoa eta industrialaren izaerak.

## Bereziki Agenda 2030 eta GIHak ezartzean, zein da zuen sektorearen egitekoa?

Agenda 2030 ezartzeko gure ekarpenaren indargunerik handiena eredu energetiko global jasangarria bultzatzea da. Hala, energia berriztagarrietara edo energia garbia kontsumitzera zuzendutako produktuak garatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu; hartara, energia deskarbonizatzen laguntzeko beharrezko teknologia daukagu, irtenbidetaren parte bihurtuz. Horrez gain, gure

makina elektriko eta frekuentzien bihurtzaileak aplikatzean efizientzia energetikoan hobekuntzak lortzen dira, hainbat sektoretan, adibidez trenbideen, industriaren edo itsas traktzioan; mugikortasun jasangarriari buruz ari gara tren eta itsasontzietan, eta horrek murriztu eta, are, desagerrarazi ere egiten du garraio-bide horiek eragindako kutsadura, baita meatzaritza bezalako sektoreena ere.

## Erantzukizun sozialari garrantzia ematen diozue; zein arlotan egiten duzue lan?

Gure Plan Estrategikoan taldeak bere helburu estrategikoak Agenda 2030eko Garapen Iraunkorrek Helburuekin lerrokatu ditu, eta, horrenbestez, jasangarritasun hirukoitzaren helburua ezarri zuen (soziala, ekonomikoa eta ingurumenari dagokiona): soziala, interes talde guztientzat eta, bereziki, gure

“Energia garbia kontsumitzera zuzendutako produktuak garatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu”



pertsonentzat balioa sortzea eskatzen diguna, garapenerako aukerak eskainiz lan ingurune seguru eta osasungarrietan; ekonomikoa, etorkizuneko hazkunde bermatzeko errentagarritasun mailak eskatzen dizkiguna; eta ingurumenari dagokiona, ingurumena errespetatzen lagunduko duten produktuak, sistemak eta zerbitzuak garatzea eskatuko duena.

#### **Zein da Ingeteamek lortzen duen balio erantsia erantzukizun soziallean inbertitzeagatik?**

Hiru alderdien jasagarritasuna da gure proiektuari balio erantsi guztia ematen diona. Pertsonak osatzen dute gure enpresaren bihotza, eta, egunez egun,

mundu jasagarri baten alde lan egin beharraz gero eta konbentzituago gaude. Gure enpresak bertan lan egiten dugunoi ahalegin horren parte izaten uzten digu, eta proiektura engantxatzen gaitu. Gure langileen esfortzuaren emaitza gisa, beste bi helburuei lotutako gainerako abantailak datoz. Gure produktu eta zerbitzuak aplikatzeak ekarpen zuzena dauka ingurumenaren jasagarritasunean; hain zuzen ere, duela urte batzuetatik hona premiazko beharrezana da munduan, eta lehentasun absolutu modura nabarmentzen ari da munduak kolapsatzeko arriskurik gabe garatzen jarraitzea nahi badugu. Ingeteam taldearentzat argi dago munduaren etorkizuneko garapen ekonomi-

**“Pertsonak osatzen dute gure enpresaren bihotza, eta, egunez egun, mundu jasagarri baten alde lan egin beharraz gero eta konbentzituago gaude”**

koak zuzeneko lotura izan behar duela ingurumena erabat errespetatzearekin.

#### **Enpresek zergatik landu beharko lukete erantzukizun soziala haien estrategian?**

Ingeteam taldearentzat bere estrategia erantzukizun sozialarekin lerrokatzea bistakoa den moduan, beste edozein enpresarentzat ere argi egon beharko litzatekeela uste dugu. Jasagarritasun hirukoitza beharrezkoa da edozein negozio garatzeko. Hiru euskarrietako bat faltaz gero, proiektuak egonkorra izateari uzten dio eta kolapsatzeko arriskua hartzen du.

Bestalde, azken boladan enpresetan eta haien jardunei lotutako legedian, pixkanaka, zenbait betebeharrak nabarmentzen ari dira, gobernantzari, ingurumenari eta gizarteari dagozkienak; izan ere, ezinbestekoak dira ekitaldi bakoitzean aldeko ikuskaritza txostenak lortu ahal izateko.

#### **4.000 lankide baino gehiago zarete. Nola lortzen da pertsonak erdigunean jartzea horrenbeste langile dituen plantila batean?**

Orain arte deskribatu dudanak, nire ustez, argi azaltzen du pertsonak proiektuaren erdigunean izatea zein garrantzitsua den. Gu orain 4.000 pertsona inguru gara, baina askoz gutxiago ginean beti gure garapena enpresan lan egiten zuten pertsonen garapenean oinarritzen gunden. Gaur egun bizi dugun egoera pertsona ugari urte luzez egindako esfortzuaren eta dedikazioaren emaitza da. Erronka filosofia horri eustea da, hazten jarraitzen dugun birtartean. Hori da gure ahalegina datozen urteetarako.



## Ibon Antero

### Mondragon Korporazioa

*“Iraunkortasunak norbere balio proposamenean duen eragina kontrastatu eta proiektuak martxan jarri behar dira”*



Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Mondragoneko eraldaketa sozialerako ekintzen koordinatzaile den Ibon Anterok. 2030 Agendaren inguruan jardun dugu berarekin.

#### **Mondragon nola hurbildu da 2030 Agendara eta Garapen Iraunkorreko Helburuetara?**

Kooperatiba ereduak zein ekarpen eginen dio gizarteari? Behin eta berriro eginen diogu galdera hori gure buruari. Eta oraingoan ere barrura begira jarri gara eta garen horretatik abiatu gara. Horrek guztiak harremana dauka Etorkizuneko Mondragonen ponentziarekin. Bertan jasotzen dira etorkizuneko erronak. Agendak oso ikuspegi zabala ematen du eta argazki horren kontra jarrita, ikusi dugu zer eginen dugun eta zertan hobetu dezakegun. Adibidez, kooperatiba askok, Eroski edo-eta Laboral, denbora dezente daramate iraunkortasunaren markoan lanean. Beste batzuk orain ari dira pausoak ematen eta gure lana da guztiok aurreratzen joatea. Harrera oso ona izan du eta, oro har, ikusten den anbizio maila altua da.

#### **Egin duzuen lanketan zein oztopotatu duzue? Zein izan da lantzeko gairik zailena?**

Kosta eginen zaigu argi luzeak piztu eta epe luzeko ikuspegia edukitzea. Bestalde, 2030 Agendak enpresaren jardunarekin daukan lotura ikusteko zailtasu-

nak ditugu. Iraunkortasunak enpresa edo kooperatibaren jardunarekin duen erlazioa ikustea ez da berehalakoa. Ez da heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa (IPDK) diruen banaketa kontua soilik, 2030 Agendaren garapena enpresaren lehia-kortasunarekin oso lotuta dago eta hori ikustea ez da erraza.

#### **Administrazioen gidaritza eta laguntza izan al duzue honetarako?**

Administrazioek marko bat jartzen dute eta horrek guztiak laguntzen du. Norabide bat marrazten du. Europatik hasita, Jaurilaritzak eta Diputazioek ere badute bideorri hau, baita udal sareak ere. Badaude beste osagai batzuk, izan ere Mondragon eta kooperatibak bezeroen, kontsumitzaileen, eta langileen beharrak etengabe entzuten ari dira eta horrek ere laguntzen du. Esaterako, karbono aztarna gutxitzen joatea da bezeroen eta administrazioen eskaera, baita gizartearena ere. Langile kolektiboek ere gero eta kontzientzia handiagoa dute. Finantzaioaren alorrean, mekanismo guztiak gero eta lotuago daude Agenda 2030arekin.

#### **GIHak lantzeak zein ekarpen eskaintzen dizuete kooperatibetan?**

Bi aipatuko nituzke. Eginen duguna babilioan jartzeko aproposa da, izan ere, askotan ez gara ohartzen hortaz. Era berean, ditugun hutsuneak eta erronkak identifikatzen laguntzen digu. Berrikuntzarako palanka bat da Agendak eskaintzen digun markoa. Era berean, elkarlan berriak sustatzeko aukera eskaintzen digu. Interkooperazioa sustatzen du baita kanpoko eragileekin ere.

#### **Zer nolako inbertsioa egin behar dute enpresek GIHak euren estrategian txertatzeko?**

Sektorea nola garatzen ari den ezagutu, interes-taldeek eskatzen dutena ezagutu, norbere sektorean nabarmenenak diren aldagaiak identifikatu, kontzientzia hartu eta diagnostiko zehatza egin behar da. Iraunkortasunak norbere balio proposamenean duen eragina

**“Kultur aniztasuna, identitate, bi termino horiek ez dira esplizituki aipatzen eta hor badago gabezia bat”**





kontrastatzea eta proiektuak martxan jartzea da kontua.

### **Zein balio erantsi ematen diote GIHeK enpresei?**

Gizarte, bezero, administrazio eta interes-talde desberdinen eskaerei erantzuteko gaitasuna ematen diete kooperatibei. Egiten duguna hobeto komunikatzeko hizkuntza bat ere bada.

### **Ba al da gairen bat Garapen Iraunkorretako Helburuetatik kanpo gelditzen dena eta zure iritziz garrantzitsua dena?**

Kultur aniztasuna, identitatea, bi termino horiek ez dira esplizituki aipatzen eta

hor badago gabezia bat. Hizkuntza gutxiuetako agenteek salatu dute egoera hau hasiera-hasieratik. Kultura- eta identitate-aniztasunaren beharra dago eta hori, nolabait, kanpo gelditu da.

### **Nolako tratamendua eman diozue hizkuntzaren gaiari zuek? Non eta nola txertatu duzue hizkuntza ikuspegia eta zergatik?**

Mondragoneko koperatibek euskara eta euskal kultura betidanik babestu eta bultzatu dituzte. Inportantea da agenda honetan arlo horiek lantzen jarraitzea. Jasota geratu behar da, halaber, kultura eta nortasunaren erronka.

Arlo horretan hezkuntza dago batetik eta, bestetik, enplegua eta lan duina izateko beharrezkoak diren gaitasunak; euskara gaitasun bat ere bada. Inportanteena ez da zein zenbakitan sartzen dugun (4, 8, 11...), baizik eta helburu horien markoan egotea, hori izango baita hamarkada honetako agenda, eta hobetzeko ekintzak bultzatu eta garatzea.

**“Berrikuntzarako palanka bat da Agendak eskaintzen digun markoa”**



## **BABESTU KOMUNITATEA**

**Non kontsumitu dezaket bertan eta euskaraz?**

[baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak](http://baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak)



## Leire Okarantza Fagor Taldea



# “Une honetan ari gara lantzen nola kokatu euskararen normalizazioa Fagor 2030 eszenatokian”

Leire Okarantza Ibabe Fagor Taldeko Gestio Sozialeko arduraduna da. Fagor Taldea eskualde izaerako kooperatiba taldea da, eta honako kooperatiba hauek osatzen dute: Copreci, Fagor Arrasate, Fagor Automation, FagorEderlan, Fagor Electrónica, Fagor Industrial, Mondragon Assembly eta Galbaian. Agenda 2030, Garapen Iraunkorreko Helburuak, Giza Baliabideak eta euskararen inguruan aritu gara berarekin.

### **Giza baliabideei edo Gestio Sozialari gero eta bitarteko gehiago eskaintzen diote enpresek. Nola lantzen duzue arloa Fagor Taldeko kooperatibetan?**

Erronka handiak ditugu kooperatiba eta enpresa guztietan eta nola ez, giza baliabideen arloan aldaketa handiak ematen ari dira, eta horrek dedikazio sako-nagoa eskatzen du. Gestio sozialean asko dira une honetan jorratu beharrekoak: lanerako behar ditugun perfilak, lanpostuak, pertsonen erakarpina, produkzio beharrak, egutegi aldaketak, merkatuen konplexutasuna... eta horri erantzuteko malgutasuna behar da.

Era berean, pertsonen garapenak garrantzi handia dauka kooperatibentzat eta formazio eta trebakuntza ezinbestekoak dira.

**Eta egoera konplexu horren ingurumarian, 2030 Agenda ageri da horizontean. Arlo sozialari garrantzia eman al zaio 2030 Agendan?**

Bai noski, arlo soziala iraunkortasunaren dimentsioetako bat da. Pertsonak eta gizarte inplikazioa iraunkortasuna kudeatzeko bost arloetako bi dira. Pertsonak erdigunean jartzen dira eta, kooperatiba garen heinean, oraindik eta pisu handiagoa hartzen du adar honek. Ezagutzaren aroan bizi gara eta pertsonak dira, neurri handi batean, enpresa lehiakortasunaren gako. Erronka handiak ditugu esparru honetan eta Fagor 2030 ekimen estrategikoaren baitan definitzen ari gara horiek, Fagor Taldea osatzen duten pertsonen eta gertuko komunitatearen ongizatea xede.

### **Horrekin lotuta, eta euskararen normalizazioaren ikuspegitik, nola jarriko dituzue praktikan Garapen Iraunkorreko Helburuak Kooperatibetan?**

Euskararen normalizazioa Fagor 2030 iraunkortasun estrategiaren baitan kokatzea dagokigu orain. Erronka globalei erantzutea dagokigu, baina iraunkorta-

sunerako bidea euskaraz eta euskaratik egiteak erronka horiek tokiko eskalara ekartzea erraztuko duela aurreikusten dugu.

### **Arlo horretan, baina, ibilbide luzea duzue.**

Bai, 20 urte bete ditugu ibilbide honetan eta asko ikasi dugu. Azken bospasei urteetan planak egokitzen jakin dugu eta kudeaketan txertatzen. Hizkuntzak kudeatzeaz ari gara eta arlo sozioekonomikoan euskarari funtzio propioak aitortzeaz. Azkeneko prozesu estrategikoan lau ildo markatu genituen. Lehena da ulermenaren unibertsaltasuna; lanpostu guztiek dute eskakizuna beraien

**“Ezagutzaren aroan bizi gara eta pertsonak dira, neurri handi batean, enpresa lehiakortasunaren gako”**



behar komunikatiboen arabera eta gutxieneko eskakizun maila ulermena da. Bigarren lan ildoak mapa linguistikoen kudeaketa da; gune bakoitzak ezagutza eta erabilera identifikatuta, arnaguneak babestu eta eragile bihurtuz. Hirugarrena, euskarari funtzio propioak aitortzea; euskarak funtzio zehatzak behar dituelako lan esparruan bere iraunkortasuna bermatzeko. Eta azkenik, laugarren lan-ildo estrategikoa komunikazioa eta legitimazioa; barne zein kanpo komunikazioa garatu eta arlo honetan gizarte eragile gisa egin dezakegun ekarpena indartuz.

#### **Gainerako arlo sozialeko kontuekin zein sinergia izan behar du euskarak?**

Arlo guztien baturak osatzen du proiektu kooperatiboa eta ezin ditugu arlo ezberdinak bakartuta kudeatu. Arlo guztiek elkar-eragiten dute eta aldi berean elkar-elikatzen dira.

Epe luzeko estrategiak markatzen ari

gara arlo sozialean ere eta euskararen normalizazioan egindako bidean ikasitakoak orain aintzat ez hartzea hutsegitea litzateke. Baina euskararen normalizazioak ere ezinbestean edan behar du bestelakoetatik, gizarte eraldaketa edo genero berdintasunetik adibidez.

#### **Bueltatu gaitzen euskarara. Ados-tutako neurriak betetzen ez direnean, zer?**

Euskararen ezagutza, lanpostuaren eskakizun bat gehiago da eta gainontzeko eskakizun teknikoekin batera kudeatzea da helburua. Lanpostua beteko duen pertsonari eskakizunak zeintzuk diren eta horiekiko bere maila zein den adieraztea da ezinbestekoa. Abiapuntu horretatik beharrezko trebakuntza eta formazio planak ezarrita, beste edozein alorretan bezala. Azken urteetan, euskarari dagokionez, kontratazio berrietan eta lanpostu aldatetetan prozesu hori nola gauzatuko den zehaztu dugu. Alde biko konpromisoa eta jarraipena

eskatzen ditu eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak ezartzea.

#### **Eta barne komunikazioaren ikuspegitik, nola iritsi langile eta bazkideengana?**

Elkarlanean, kide guztiok osatzen dugu proiektu kooperatiboa eta ezinbestekoa da guztiok proiektuaren parte izatea. Komunikazioari dagokionez, kooperatibetan berezko kanalak ditugu: hitzaldi informatiboak eta kontseilutxoak, adibidez. Bestalde, momentu honetan, talde mailako buletin bat ere sortu dugu Fagor Taldeko pertsona guztiengana zuzenduta.

**“Euskararen normalizazioak ere ezinbestean edan behar du bestelakoetatik, gizarte eraldaketa edo genero berdintasunetik adibidez”**



## Gotzone Olarra Intermon Oxfam

*“Gurean, pandemiak aberatsen eta pobreen arteko aldea are gehiago zabaldu du”*

Intermon Oxfameko programen arloan egiten du lan Gotzone Olarrak, sentsibilizazio kanpainak zabaltzen, boluntarioek gauzatzeko proposamenak lantzen eta boluntario taldeak indartzen.

### **Injustizia eta pobrezia errotik kentzea da Intermon Oxfamen helburua. Zer arlotan lan egiten duzue hori lortzeko?**

Alde batetik hainbat herritan, Espainiako estatuan barne, gizarte zibileko taldeekin egiten dugu lan programa ezberdinetan: bizimodua ateratzen laguntzeko programak, gizarte zibila indartze-koak, etab. Beste alde batetik, larrialdi egoera pairatzen duten eremuetan, ur garbia ekartzen laguntzen dugu, higie-nearen arloa lantzen dugu eta berreraikitze planak bideratzen ditugu.

Horrekin guztiarekin batera, ezinbestekoa da injustiziak salatzea, ezagutzera ematea eta inzidentzia politikoa. Azken honi dagokionez, talde eta erakunde politikoekin lan egiten dugu aldaketarako txostenak zein proposamenak lantzeko, herrialde bakoitzean zein nazioartean, eta baita pertsonak aldaketa horien alde mobilizatzeko.

### **Pandemia egoera honek zaildu egingo du oraindik ere zaila den egoera?**

Jakina! Mundu osoa jo du pandemiak. Oso egoera larrian bizi direnek ere pandemiari aurre egin behar diote; adibidez, Grezian harrapatuta bizi diren errefuxiatuek. Garapen bideko herrialdeetan gurean bezain gogor jo ez badu



ere, osasun zerbitzuen eskasiak eta baliabide faltak hilkortasuna handitzen dute nabarmen, eta jendeak ezin dio lan egiteari utzi, bestela ez baitu jatekorik izango. Gurean, pandemiak aberatsen eta pobreen arteko aldea are gehiago zabaldu du; baldintza okerragoetan zeudenentzat, kolpe latza izan da pandemia.

### **2030 Agendak eta Garapen Iraunkorreko Helburuek nola egiten dute bat zuten helburuekin?**

Gutziz dira gure helburu. Batzuk zuzenean lantzen ditugu gure lana izan direlako betidanik; beste batzuk, beste zenbait erakunderekin batera. Banaka aurkezten dira, baina elkarren arteko lotura handia dago. Pobrezia, gosea, ura, osasuna, hezkuntza dena da bat. Baita genero berdintasuna, lan duina edo desberdintasunen murrizketa, esaterako. **Zerbaitetan motz geratzen direla uste duzu?**

Zaila da alderdi guztiak sartzea, batez ere mundu osorako helburuak direnean. Horregatik egiten dira herrialdekako planak; baina oso inportantea da planok ikuspegi globala izatea, bestela helburuen asmoa galduko litzateke. Zer ez da agertzen? Beharbada kultura aniztasunaren babesa. Hezkuntzari buruzkoan, esaterako, zaila da helburuok betetzea, nor bere hizkuntzan ikasi ezin badu. Borroka handia izan da hizkuntza indigenak eskoletara eraman ahal izatea.

**“Ezinbestekoa da injustiziak salatzea, ezagutzera ematea eta inzidentzia politikoa”**



# Mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko 17 helburu

Garapen Iraunkorri buruzko 2015eko Mundu Gailurrean, NBE-ko Estatu Kideek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzailea. Giza garapena bultzatu nahi ditu 2030 agendak gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan. Horretarako, 17 helburu eta 169 xede zehaztu dira, baita aitorten politiko bat ere.



2016-2030 aldirako, nazioarteko garapen-agenda nagusia da, eta erreleboa hartu die 2000 urteaz gerotik indarrean ziren Milurteko 18 Garapen Helburuei. Gainera, unibertsala da eta, horregatik, herrialde guztietan aplikatu daiteke.

## Hizkuntza aniztasuna?

Euskal enpresak Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzen hasi dira, Nazio Batuen Erakundeak abian duen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren baitan. Marko horrek 17 helburu

definitu ditu, baina **hizkuntza aniztasuna** ez da modu esplizituan aipatzen. Hezkuntza eta kultura aipatzen dira zenbait helburutan, baina ez da hizkuntza aniztasuna babesteko neurririk proposatzen.

Gure ustez, berezko lekua eskaini beharko litzaioke hizkuntzari Garapen Iraunkorrerako Helburuen artean eta olatua baliatu beharko genuke lanketa eta proposamen bat egiteko, erantzukizun linguistikoa enpresen gizarte-erantzukizunaren parte baita.

Kezka horretatik abiatuta proposatu

zuten Euskaragileak enpresa-batzordeko kideek aurtengo Enpresaren Azokako gaia: 'Garapen Iraunkorrerako Helburuen aplikazioa euskal enpresarean. Eta hizkuntza aniztasuna?'

Gai honen lanketan, Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak hizkuntza erantzukizuna ageriago adierazteko beharra aldarrikatu, eta "17+1. helburua" proposatu du, hizkuntza eta kultura aniztasunaren berme izateko. Enpresaren Azokan, ordea, beste helburuekin batera landuko da hizkuntza, 2030 agendak barne hartzen dituen 17 helburuen barnean, alegia.

# LANsarean bilalan

## Euskarazko lan-ataria

Lan bila zabilta?  
Lana eskaintzen duzu?

[lansarean.eus](http://lansarean.eus)

[@lansarean](https://twitter.com/lansarean)

[in lansarean](https://www.linkedin.com/company/lansarean)

## BERRIA!

OPOSAKETETARAKO  
MATERIAL BILTEGIA  
ETA GALDETEGIAK



Geroa  
elkarrekin  
eraikiz  
[baieuskarari.eus](http://baieuskarari.eus)

## Arabako lan munduan euskararen alde lan egin dutenak sarituko ditugu Lazarraga Sarietan

Lazarraga Sarien seigarren edizioa abian da. Bai Euskarari Elkateak antolatzen du sariketa, Arabako Foru Aldundiarekin batera. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 26an izango da Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, eta hautagaiak proposatzeko epea zabalik dago urriaren 30era bitartean.

Lazarraga Sarien helburu nagusia da Arabako arlo sozioekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitateak edota pertsonak saritzea, haien ahalegina aitortzea eta ereduak zabaltzea. Bost sari banatuko dira orotara, eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko eta lana euskaraz egiteko garatutako neurriak hartuko dira kontuan.

Hautagaitzak pertsona fisikoek zein entitateek aurkez ditzakete. Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko barrendegian egoitza izatea da baldintza bakarra hautagai moduan aurkezteko. Hautagaitzak aurkezteko formularioa aurkituko duzu QR kodea eskaneatuta. Informazio gehiago duzue <https://baieuskarari.eus/eu/proiektuak/lazarraga-sariak> helbidean.



## Arabako Enpresen Foroa

Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiarekin bat egin dute Lanabes - Araban Euskara Lanean programari bultzada emateko. Akordio horri esker, hiru erakundeek lurraldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko giltzarri izan nahi duten bi proiektu abiatu dituzte: aholkularitza-zerbitzu tekniko bat eta enpresen foro bat. Azken hori, enpresen foroa, Bai Euskarari Elkartek kudeatuko du.

Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden eta hizkuntza kudeaketarekin kezka duten enpresen arteko foro bat da. Besteak beste, ardura hauek izango ditu: euren jardunaz duten jakintza, gogoetak eta kezkek partekatzea; elkarrengandik ikastea; jakintza berria sortzea; eta Arabako Lurralde Historikoaren alor sozioekonomikoan euskararen erabilera hobetzen laguntzea.

Foroan parte hartzeko garaian, lehen tasuna izango dute tamaina ertain-handiko enpresek eta merkatal guneek, orain arte euskara sustatu dutenek eta etorkizunean ere urratsak eman nahi dituztenek.



EUSKARA  
KULTURA  
HERRIAREN GEROA





## COVID-19: euskarazko kartelak merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresentzat

COVID-19 gaitzak eraginda, merkataritzan, ostalaritzan zein zerbitzu enpresetan lan egiteko modua aldatu da eta, bide batez, azken hilabeteotan ugaritu dira kontsumitzaileriei zuzendutako kartelak, kasu askotan erdaraz agertzen direnak. Bai Euskarari Elkarrekin euskaraz jarri ditu kartel horietako asko, behar dituenak erabili ditzan. Berebiziko garrantzia du denda, taberna, jatetxe eta zerbitzu enpresetako hizkuntza-paisaia euskalduntzeak, euskaraz erosi edo euskaraz lan egin nahi duten pertsonen aukera errazteko.

Gure komunitateari ekarpena egiteko asmoz COVID-19ak eragindako neurrien berri emateko hainbat kartel sortu ditugu, merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresentzat erabilgarriak izan daitezkeenak.

Helbide honetan eskura ditzakezue <https://baieuskarari.eus/eu/baliabideak/covid19-errotuluak> edo QR kodea eskaneatuta.



## Geroa Elkarrekin Eraikiz kanpaina, komunitatearen lana aitortzeko

COVID 19ak erabat baldintzatu ditu gure egunerokoa eta jarduna. Azken hilabete hauetan, inoiz baino argiago ikusi dugu zein garrantzitsuak diren pertsonen arteko harremanak. Bat-batean bizitza goitik behera aldatu zaigu, eta jabetu gara zein beharrezkoa dugun elkarrekin egotea, elkarrekin lan egitea, elkar zaintzea eta elkarrekin saretzea. Horretan oinarrituz, #GeroaElkarrekinEraikiz komunikazio kanpaina ere abiatu dugu Bai Euskarari Elkarrekin, eta Bai Euskarari komunitateari aitortpena egin nahi izan diogu bere bidez.

Egoera hau baliatu behar dugu geroa euskaratik eraikitzeko, aldatetako egiteko eta eragiteko. Gure ongizatea eta lurraldearena, hizkuntzekin ere lotu behar dira, eta gure kasuan, euskara da gure ongizaterako giltzarrietako bat.

Elkarlanean aritu behar dugu, elkarri aitortuz alor sozioekonomikoan bakoitzak duen garrantzia, elkar babesten. Izan ere, euskararen sustapena denon inplikazioa behar duen prozesu kolektiboa da, konpartitua izan behar duena, eta eragile guztiek egin behar dute bere ekarpena.

#GeroaElkarrekinEraikiz izango du euskarak presentzia handiagoa.

Ikusi kanpainarako egindako bideoa QR-a eskaneatuta.



GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK

LEITZARAN  
grafikak


Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tf: 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)

# BATU EUSKARAREN MAPARA!

Ezagutu zure komertzio edo entitatearen  
hizkuntza-egoera eta bat egin Bai Euskarari  
komunitatearekin.

**Bete auto-diagnostikoa:**

[baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa](https://baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa)



**bai**  
euskarari

Geroa  
**elkarrekin**  
eraikiz

[baieuskarari.eus](https://baieuskarari.eus)

